



# zenbat gara elkarteak

*Arrate Diez*

Zenbat Gara Elkarteak Gabriel Aresti euskaltegitik datorren elkarte bat da. Euskaltegia duela hogeita bost bat urte sortu zen Bilbon. Hamar urte geroago, 1995ean, irakasle batzuk bildu ziren eta Bilbon euskaraz aritzeko toki erreferenzialik ez zegoela ikusita, elkarteak sortu eta martxan jarri ziren, "Bilboko euskaldunok oso sakabanatuta bizi ginen eta gure arteko elkar-gunerik ez genuenez lokal baten bila hasi ginen" dio Xabier Monasteriok, elkarteko arduradunetako batek.

Zenbat Gara Elkarteko zerbitzuak, bilgunea lortzeko, Bilboko euskaldunen erreferentzia puntu bat izateko, erdaldunei euskaraz eta euskaratik gauza ederrak egin daitezkeela erakusteko, euskaraz bihotza eta ardatza izanik euskal kultura defenditu daitezkeela eta euskaraz bizi daitezkeela adierazteko dira, eta hauek izan ziren lehen erronkak. Hau guztia, ausardia, beldur eta arrisku handiz egin zen.

Xabierren esanetan, "elkar-teak hiru printzipio nagusi ditu: hizkuntza, euskarak batzen gaituelako. Hizkuntza bati lotua doan kultura herri batena da. Eta hizkuntzaren normalizazioa alor guztietara zabaltzea. (Jatetxea, hitzaldiak, kontzertuak euskaltegia, umeentzako zerbitzuak, irrataria, liburuak... dena euskaraz. Jendeak behar dituen gauza guztiei erantzutea da gure helburua, hizkuntza normalizatzeko asmoz". Guztira ehun bat lagun ari dira zerbitzu guztietan lanean.

Zenbat Gara elkarteak hainbat lokal ditu: Kafe Antzokiaren gaineko zazpi solairuak, Gran Viako euskaltegi hiru solairuak, Baserri-etxe bat Nafarroako Bakaikun (laurogeita hamar lagunentzako tokia, ikastaroak, ikasleentzako mendira irteerak, jolasak, barbakoa, dantzaldiak... egiteko tokia). Udan gazteak ere eramaten dituzte bertara. Duela hiru urte ostatu bat hartu zuten Ondarroan, bertan hogeita gela





daude Arrigorri hondartza gainean. Eta Ondarroan beste kafe Antzoki bat ere badute.

Euskaran murgilarazteko hainbat zerbitzu

Elkartek eskaintzen dituen zerbitzuetariko bat kontzertuak dira. Adibide gisa, 2004ko urtean hirurehun ikuskizun eskaini zituzten. Bertoko nahiz kanpoko artisten kontzertuak, umeentzako ekitaldiak, liburu eta disko aurkezpenak, zein kulturari loturiko gainerako aurkezpenak, esaterako.

Beste zerbitzu bat jantokia da, Bilbon eta Ondarroan eskaintzen dutena. Umeei dagokienez, bostehun ume bazkide dituzte. Iraitetik ekaina arte igandero Bilboko kafe antzokia arratsaldean beraientzako da, txotxongilo, pailazo, antzerki, dantzariak, musikalak, ipuin kontalarien zein magoen ikuskizunekin. Xabierrek azpimarratzen duenez, "honekin kulturaren kultura lan-tzea nahi dugu, hala haientzako igandero euskara egongo da eta dibertitzeko hizkuntza izango da". Umeentzako hiru antzerki lan sortu dituzte, bi CD eta DVD bat ere grabatu dituzte.

Elkartean kirola egiteko aukera ere badago: Yoga, aerobic eta masaje ikastaroak antolatzen dituzte. Sauna zein gimnasia lekua eta frontoi txiki bat ere badute Bilboko lokaletan.

Zenbat Gararen beste zerbitzu bat irratia da, Bilbo Hiria irratia FMko 96an. Euskara hutsez emititzen dute, goizeko eta arratsaldeko saioak eginez. Egunero zazpi-zortzi orduz zuzenean emititzen dute eta gai-

## Arrakastaren sekretua

Xabierren iritziz, "Zenbat Gara elkartearen arrakastaren neurri bat hiru kontzeptutan sinistu dugulako iritsi da. Batetik, berdintasuna, jendea zein artista guztiak berdin tratatzen ditugulako. Bestetik, askatasuna, jendeari lanean ibiltzeko eta nahi duena esateko askatasun osoa eman diogu. Eta elkartasuna, beti saiatu baikara aplikatzen, bazterketa jasaten dutenak zein sufrimendua edo eta arazoak dituzten kolektibo zein pertsonentzako lokaleko ateak beti zabalik egongo dira". Hemendik aurrera elkartekoen erronka gizartearen gertatzen ari diren aldaketei adi egotea eta interpretatzen jakitea da, beti ere, eskaintzen dituzten zerbitzuak moldatu eta hobetu ditzaten.

nontzekoa kalitatezko musika da. "Beharrezkoa iruditzen zaigu Bilbon halako Irrati bat edukitzea, euskara hutsez eta giro urbanoko gaiak lantzen ditugu. Bilbo Handirako emititzen dugu eta Santurtzitik Galdakaora birtarteant zuzten da".

Honez gain, oporraldiak antolatzen dituzte euskaraz familiarizat Nafarroako Auritzberri herrian, Urrobi kanpinean, hain zuzen. Eta aurtien Bilbon sekulako arrakasta izan duen hamar orduko barnetegi trinkoa asmatu dute, bakoitzak bere etxean lo egin dezan.

Hogei bat tailer ere badaude: dantza, kantagintza, serigrafia, argazkigintza, Internet, literatura, zinema, esku-lanak, jostungintza...hala, ikasleek euskara ikastearekin batera asteen bi aldiz horrelako tailerrak egiten dituzte. **F**